

Juan Garzia bere ez-bakardadean

KARLOS DEL OLMO

Juan Garziak birritan irabazi du itzulpen onenerako Euskadi Saria: 2015koa, *Sonetoak* (William Shakespeare) euskaratzeagatik, eta 1999koa, *Ipuin hautatuak* (Borges) itzultzeagatik. Azken urteotan Euskal Herriko itzulpengintzan ezin konta ahala ekarpen gogoangarri eginikoa da, dela alderdi praktikoan, dela teorikoan, dela didaktikoan, itzulpengintzaren inguruko sare sozialetako ekarria ahaztu barik; besteak beste, EIZIEren *Itzul* posta zerrenda eta *31 eskutik* bloga.

Irakaskuntza arautuan zein bestelakoan irakasle lanetan luzaro jardun ondoren, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuko behargina izan da duela gutxi arte. Euskaltzain urgazle izendatu zuen Euskaltzaindiak 2013an. Idazlea ere bada, itzulpengintzan ibilbide oparoagoa izan badu ere. Ikusi besterik ez dago honako zerrenda hau: Pierre Couronne-ren *Neuk ikusia ibai ertzean* (1986), Herman Melvilleren *Bartleby izkribatzailea: Wall Street-eko historia bat* (1991), William Shakespeareren *Soneto hautatuak* (1995), Roland Barthesen *Testuaren atsegina. Idazkuntzaren zero gradua* (1996), Gilbert Keith Chestertonen *Ostegun izan zen gizona* (1997), Jorge Luis Borgesen *Ipuin hautatuak* (1998), Primo Levi-ren *Sistema periodikoa* (1998), Henry Jamesen *Aspernen paperak* (2000), Samuel Becketten *Godoten esperoan* (2001), Juan Rulforen *Pedro Paramo* (2001), Marcel Schwoben *Bizi alegiazkoak* (2002), William Shakespeareren *Hamlet: Danimarkako printzea* (2002), François Jacoben *Sagua, eulia eta gizakia* (2004), Jorge Wagensbergen *Formen matxinada* (2007), Ernest Gellner-en *Nazioak eta Nazionalismoa* (2009), William Shakespeareren *Hamlet* (2012), William Shakespeareren *Sonetoak. Zeru horren infernuak* (2014), William Shakespeareren *Uda gau bateko ametsa* (2014), Herman Melvilleren *Bartleby eskribatzailea* (2016).

KARLOS DEL OLMO: *Gau-erdiaren seme-alabengandik Uda gau bateko ametseraino: itzultzailea, gaueko lanean diharduen kontrabandista? Behin esan zenuenez, kontrabandista apatrida bat da itzultzailea.*

JUAN GARZIA: Ez dut gogoan noiz eta zer testuingurutan bota nuen hori, baina saia nadin eusten. Badira sorburu-hizkuntza eta xede-hizkuntza, eta haietan bizi dira hitzunak. Itzultzailea batetik bestera dabil

etengabe, itzalgaijka jenero-garraio, baina ez dago, egon, ez batean ez bestean: hizkuntza bien (edo guztien) artean ibiltze horretan bizi da itzultzaile den heinean. Oso maila abstraktuan hori, zereng, bestela, nik neuk, *apropiatzaile*-lantzat daukat zehazkiago neure itzulpengintza. Inorena euskarari ekartzen nabilelakoan dihardut; alegia, txirra aberastu nahian. Ez da bekatu, ezta?

KARLOS: Shakespeare XXI. mendean euskaratu duzu. Bidaide ona izan da ala etengabe segadak jartzen dituen horietako bat? Shakespeareren beste lanen bat euskaratzeko gogorik? Zein?

JUAN: Shakespeare, literatura gisa, ez da mende batekoa edo baterakoa (eta nik eskolatik diet gorroto halako kronologia eta periodizazioei). Serio pentsatzen ari naiz inorekin baino ordu gehiago eman dudala Will-ekin azken hogeitau urte luzeotan, eta konpainia zoragarria izan da, edozein aldarretan ere. Badut dagoeneko neure sortatxoak itzulita: *Hamlet* tragedia, *Uda gau bateko ametsa* komedia eta *Sonetoak*. Uste dut *Lear* tokatuko litzatekeela orain, eta gero *Ekaitza*-edo... Ai, horretatik bizitzerik balezago!

KARLOS: Nola eta zergatik heldu zinen itzulpengintzara?

JUAN: Zaila izaten da halakoetan arrazoi sakonak jakiten. Irakasle nintzela, jabeturik nengoen nolako eskasia genuen literatura-bazkaz, eta, garai hartan gauza gehienak egiten genituen bezala, neu hasi nintzen saiotxo bat edo beste egiten, neure burua probatze aldera. Eskasia, bestalde, ez zen

bakarrik euskarazko literaturarena, baizik eta gutariko bakoitzaren hizkuntzarena, neronena gordin-gordinik barne. Hala, itzulpen-hasikin haien neke gozoan, bidenabar, hizkuntza-tresna zorrozten ari nintzen. Eta horretan jarraitzen dut noski: ez da ariketa hoberik, eta zerikasialdiro areagotzen da zerbait (ustez) ikasi ahala...

KARLOS: Lehenengo itzulpen *kontzientea* gogoan?

JUAN: Eskolako gauzatxo batzuk alde batera utzita, Rushdie-ren *Midnight's Children* izan zen nire lehen entrenatoki luze serioa. Oso garbi neukan, hasieran, neuretzat ari nintzela, oso gustuko nuen prosa bat euskaratzeko ausardia betean, eta egin litezkeen bekatu guztiak eginez; besteak beste, gaztelaniazko bertsiotik itzultzen nuen... Geroztik, buelta asko eman zuen itzul-asmo horrek, eta herenean-edo gelditu zen (hasieran baino txukunxeago) itzulita. Amaitu gabe, beraz, baina ni (nire prosa, nire itzulmoldea eta nire ingelesa ere nolabait) *Midnight's Children* haietariko bat naizela esango nuke. Gero, haurrentzako liburuxka bat itzuli nuen, katalanetik, eta huraxe da lehenik argitaratu zena: *Lierni*.

Argitaratzearen kontuaz ari garela, konturatu naiz ahaztu ditudala nire ibilbidean garrantzi handia izan zuten beste itzulpen batzuk, argitaratu ez zirenak (baina bai taularatu), ustez lehenagokoak direnak ia guztiak, aurretik aipatu ditudanak baino: hiruzpalau antzezlan. Ez dago esan beharrik zer onura dakarren antzerkiko testuak apailatu beharrak hizkuntzari, besteak beste, zuzeneko komunikagarritasuna emateari begira. Hori ere ikastegi eta probaleku ede-

rra izan zen, eta oso eskertuta nagokie beren saltsan sartzen utzi zidaten antzezle jator haiei guztiei.

KARLOS: Nolako prestakuntza izan zenuen itzulpengintzan?

JUAN: Batere ez. Neure kasa ekin nion, intuizio hutsez. Gogoia baino ez nuen, baina tematia naiz zerbait buruan sartzen zaidanean. Gerora, saiatu naiz kontrastatzen nire praktika teorizatzaileen esanekin. Eszeptiko samarra naiz, hala ere, itzulpen-teoria delakoaz; hizkuntza-bikote bakoitzari buruz ez badihardu, ezer gutxi atera daiteke praktikan, nik uste; eta orokorki esatekoek nekez bete lezaket, mamiz, liburu oso bat. Nire ustez, praktikan oinarritu behar lirateke nagusiki ikasketak ere.

KARLOS: Zure itzulpengintzaren bilakabidea laburtuko diguzu, hasi zinenetik eta gaur arte? Alderik ikusten duzu?

JUAN: Oraintxe egokitu zait nire hastapen hartako itzulpen kuttun bat eguneratzea berrargitaratzeko: *Bartleby*. Inozoa ni, uste nuen aski izango zela *Hiztegi Batuari* zegozkionak eta beste txikikeriaren bat moldatzea, baina ia lan gehiago eman dit berriro hutsetik itzultzeak baino. Ordukoa eta orain argitaratu dena parekaturik ikus daiteke nola aldatu garen, bai ni (xehetasunetan, ustez; ez funtsean) eta bai euskara bera ere.

KARLOS: Juan irakaslearen eskarmentuak zer ekarri dio Juan itzultzaileari?

JUAN: Nik esango nuke alderantzizkoa dela eragin nagusia. Neu praktikan ikasiz joan naizena helarazi nahi izan diet eskarmentu

hori jaso nahi izan dutenei. (Behin, halaxe esan zidan batek ikastaro batean: «Zergatik uste duzu zuri kasu egiten dizugula: zuk aurretik praktikatuak dituzulako esaten dizkiguzunak». Ez daukat saltzeko piropo hori, neuk esaten baitut ikastaroetan ez dakardala *teoriatik*, praktikaren formalizazio bat baino, nork berearekin kontrastatzeko). Hasieran, guztiz harriturik nengoen beste inork (trebeago batek) ez zuelako egiten bilketa-eta sistematizazio-lan hori, baina, azkenean, ia nire lanbide nagusia bilakatu da hori. Hizkuntzaren eta hizkuntzen kontzientzia ikaragarri zorrozten da dialektika horretan, baina badu zehar-kalte bat: eginak egin, egitekoa nabarmen.

KARLOS: Eta zuzentzaileari?

JUAN: Bada, aurreko horixe bera. Ez dakit zein den gogorrena: inorenak zuzentzea ala norberarenak. Tira, horrek ere ematen ditu pozak, esker onez hartzen baitira kidearen begiek ikusarazten dizkigutenak; denok baikara gutxi-askoitsuak geurearekiko. Aspalditik nabil esaten, hala ere, *zuzentzaile* hitza baztertzea litzatekeela; lan horrek izen jatorragoa merezi luke: *hobetzaille*.

Horri dagokionez, gogora datorkit aspaldiko batean zer bota zidan adiskide dudana itzultzaile batek, nik garai hartan Literatura Unibertsala bildumako argitalpenak zuzendu behar izaten zituenaren eramana eta xehe-gosea goraiatzean: «Hik zuzenketa beharrez bidaliko dituk itzulpenak; nik, berriz, garbi-garbi aurkezten ditiat, “soineko xuriz jantziak”, eta ez diat inoiz izaten bes-teren zuzenketa beharrik». Jakina, denok ez dugu halako (h)egorik... Itzulpengintzan, bizitzaren beste alderdi gehienetan bezala,

badago zoriontasun halako batean bizi den jenderik, ados ere ados bere buruarekin. Enparauak, berriz, kondenaturik gaude gauzak ondo egin nahi izatearen etengabeko gatazka horri orekan eusten saiatzera. Lana arinago eginda emaitza hobetik lor genezakeela?; tira, etengabe borroka horretan iraun behar, ezin *garenaren neurrira* etorri...

Egun, zorionez, fidagarritasun handiagotz itzultzen dugu, zorrotzagoak gara zehaztasunean. Zer esanik ez, beti erra daiteke itzultzailea, eta ez bakarrik informazioaren aldetik, gauza asko egoten baitira jokoan: doinua, estiloa, intenzioa... Nolanahi ere, gaurko itzultzaileez esan genezake lehen baino zehaztasun handiagotz joka dezaketela jatorrizkoan hautematen dutenaren arabera. Hori alde batetik; bestetik, uste dut sendatuxea dugula, baita ere, gaizki ulertutako zehaztasuna (mikro-zehaztasun formal hutsa): hemen jatorrizkoan izena ageri baldin bada, nik izena bilatu behar dut ordainetan, kosta ahala kosta, asmatuta baldin bada ere.

KARLOS: Ba ote Juanen *eskola* halako bat? Aspaldi honetan irakasle jardundako ikastaroez, zer esango zenuke?

JUAN: Uste dut badela hor gaizki-ulertu bat, gogaikarri zaidana. Zuzenean nirekin aritu denak garbi dauka ni ez noala zerbait *saltzera*, teoria bat edo doktrina bat. Are gutxiago, esan bezala, arituaren eskarmentuaren partez (ustezko) adituaren arauak ezartzera. Ni ez naiz arauemaile, inola ere, eta ez dut aginpiderik hizkuntzaren eta idazkeraren gainean. Nik neuri balio didaten azalpen eta jokabideak aurkezten ditut, nahi duenak bereekin kontrasta ditzan eta, baliagarri

zaizkion neurrian, aplika ditzan. Beti esplizitatzen dut testugileak berea duela erantzukizuna, eta bide galdua dela, edo galbidea, inori entzundakoekin aritzea, entzundako hori bere galbahetik pasatu ez bada, norberaren sena baita (sen landua, jakina) erreferentzia eta berme bakarra. Testugilea, bai, bakarrik dago orrialde zuriaren aurrean.

Hori esanda: bati, edo ehuni, edo milari, lagungarri bazaizkio nire maiseaketak, pozik ni, nire lanak fruituren bat eman duelako eta, ondo bidean, gure testugintzak aurrera egiten duelako denon lanari esker. Akatsak zuzentzea horren parte bat da, baina, esan bezala, testuak hobetzea da helburua, ez boligrafo gorria dantzatzea aginte-makila balitz bezala.

KARLOS: Zelan definituko zenuke zeure burua itzultzaile eta zuzentzaile modura?

JUAN: Itzultzaile-modura, obretan egongo naiz ondoen definitua. Horrela, laburrean esateko, san Jeronimorenetik has gaitezke («Zentzuz zentzu, eta ez hitzez hitz») eta Miguel Sáenzenarekin errematatu («Ahal bezain hurbil, behar bezain urrun»). Jakina, bada zer xehatua lelo horietan eta, batez ere, ikuspegi aplikazio konkretuan.

Beste modu batera definitzen saia nadin. Niretzat, *pertinentzia* da gakoa, itzultzea ezinbestean den *galeren kudeaketa* horretan. Zer den une bakoitzean nagusiki gorde behar dena kasuan kasuko itzulgaian. Literatura-itzulpenean, bereziki, *efektua* da oroz gainetik zaindu beharra: jatorrizkoak irakurleari eragiten dion moduan eragitea testu itzuliak.

Ezinezkoa, noski, baina ezinekiko borroka etengabea da gurea, ezta?, eta ez itzulpengintzan bakarrik.

Zuzentzaile gisa, ez da kasu bera testu itzuliena eta zuzenean sortuena, eta generoak eta egoerak ere bereizi behar lirateke, baina aipatu berri dudana *filosofia* aplikatzen saiatzen naiz. Seinale ona izaten da zuzenketa egin dion pertsonak aintzat hartzea markatu dion hobekizuna baina berak erabakitzea nola hobetu, zuk emandako arrastoak gorabehera.

KARLOS: Itzulpengintzak opari egindako une goxoren bat.

JUAN: Asko dira. Gehiegi, hemen aipatzeko. Zorionez, gustuko testuak itzuli ditut gehien-gehienetan, eta, lana izanagatik, eta gogorra, eta gaizki ordaindua, gozarena da, niretzat behinik behin, testuan murgildua eta mundutik galdua egotea: bizitza paralelo bat, guztiz konpainia noblean.

Hori, prozesuan. Gero, emaitzetan, txaloak, sariak eta abar, primeran, baina bada beste kontu bat Borges en ametsetariko bat zena, eta halako zorion-irri bare bat pizten didana, ez baita erraza gertatzen eta, lortuta ere, jabetzen hala dela. Hara zer den. Berrargitaratu berri den *Bartleby eskribatzailea* eleberri laburrean, esaldi sonatu bat euskaratzea egokitu zitzaidan, eta istoriotik gizartera egin du jauzi, hizkuntza ondare komunera pasatuz: «*Aukeran nahiago ez*». Borgesen buruz ekarrita: anonimotasuna lortzea da loria literarioaren gailurra.

KARLOS: Itzulpengintzak ekarritako une garratzen bat.

JUAN: Nik ez nuen egin soldaduskarik (nire titulu preziatuena da orduko *inútil total* hura), baina han ibilitakoei bezala gertatuko zitzaidan, nonbait: infernu hori zerutu egiten dutela oroimenean, eta abentura-istorio gisa kontatzen. Nire esperientzia ez da estrapolagarria, hala ere, ez bainaiz aritu ia inoiz, askoren moduan, gogoz kontrako erlojupeko neke larrian lau sos irabazte aldera. Garraz hori ez dut nik bizi izan hainbestean.

KARLOS: Zer sentitu zenuen Euskadi Saria irabazi zenuela jakitean? Berdinak izan ziren aldi biak?

JUAN: Bietan poza, jakina. Lehenak kitzika handiagoa, beharbada, lehena izateagatik noski. Ez dakit, hala ere, mesede egiten dioten sariok nire irudiari, jende askok nitaz dukeen estereotipoa kontuan izanik: Borges eta Shakespeare, harrapa itzak! Ez da azpimarratu, baina ausardia izan du epaimahaiak, bestalde, poesia-liburu bat sariturik lehen aldiz. Ni, hasieran, besterik gabe harritu egiten ninduen nire gauzei egiten zitzaien harrera onak; orain, ohituago nago, eta ia sinetsita txukun-antzean egingo nuela tarteka zerbait ere, baina esker onak berdin dirau (eta harridura pixka bat ere bai oraindik ere: izango da ba hoberik —egiten dut neure artean— horretan eta guztian).

KARLOS: Zer hartzaile mota izaten duzu buruan, itzultzean?

JUAN: Ez dut uste nik erabakitzen dudarik. Literaturan, liburu bakoitzak *sortzen* du bere irakurlea. Itzultzailea intuizioz ari da horretan ere (hala behar, teorizatze gehiegia ihesbide eta aitzakia-zuritzaile izaten baita maiz:

egina justifikatzeko, ona zein txarra izan), eta konplexua da jokoa: bera den irakurleak sentitu dituenak baino ezin dizkio helarazi itzultzaileak beste irakurle-mamuari (berak irudikatzen duen irakurkide *ideal* horri). Ekintza soziala da itzulpena, baina bana-koen artekoa: interpersonal. Balorazioak ere, beraz, intersubjektiboak dira, hots, ez arbitrarioak baina ez objektiboak ere... Ufff: ikusi zertara ekarri nauen galderak... zuzenean erantzun gabe ere.

KARLOS: Gustukoen izan duzun itzulpena?

JUAN: Hartzaile modura, jatorrizko testua ez dela ahantzarazi didan edozein (nahiz gero nik neure baitan, deformazio profesionalerik, ikuspegi horretatik *ere* heldu). Ez pentsa hainbeste direnik. Itzultzailearen kontzientzia ere gero eta zorrotzagoa da, alarmak erne beti. Baina esango nuke ez dela hori bakarrik, eta kalitate-exijentzia gero eta eskasagoa dela, oro har, zirkuitu komertzial nagusietan, liburuaren industria delakoan (txantxa onartzen bazait, euskarazkoak salbu gaude, gure txikian, arrisku horretatik).

Nik itzulitakoetan, oso zaila zait hautatzen, bakoitza baita kasu bat bere argizalekin.

KARLOS: Zer hizkuntzatatik itzultzen duzu erosoan? Zergatik?

JUAN: Alderantzizko proportzioan doa kontua: zenbat eta hurbilago eduki sorburu-hizkuntza (gaztelania, kasu honetan), zailantza gehiago eta galeren eta amarruen kontzientzia handiagoa. Hain *neure* ez ditudan hizkuntzekin, berriz (gainerako guztiak, ibiliak ibili), zenbat eta arrotzago, lan

handiagoa xehetasunak ondo harrapatzeko, eta beldur handiagoa oharkabean egundoko hutsa egiteko.

KARLOS: Itzuli dituzun lanak gogoan, zeure burua pribilegiatutzat joko zenuke?

JUAN: Bai, jakina. Azaldu ditut arrazoiak. Luxua da gustuko lanean jardutea.

KARLOS: Zein izan da itzulpenik nekezena?

JUAN: Irakurleari errazen iruditzen zaionen bat, ziurrenik. «Erraz eta natural» esaten dugunean, neke handiz lortutako efektu batez ari gara. Ez ahaztu, hala ere, hori lortzeagatik jatorrizkoari traizio egitea ere akatsa dela, eta larrietariko.

Gutxien uste duenean egiten du topo itzultzaileak zailtasun latzekin. Ageriko zailtasunak hasieratik hartu ohi ditut nik desafiotzat, eta horrexek ematen dit indarra haiei ekiteko, gustura ekin ere. Okerrago da testuak lau-lau eta simple dirudienean eta gero itzulpenean halaxe emateko sekulako maniobrak egin behar dituzula jabetzen zarenean. Etsigarria da hori. Eta, gero, jakina, garbi daukazu irakurleak ez duela ikusiko esfortzu hori hor: zenbat eta landuago eta lortuago, orduan eta *normalago* irudituko zaiola hainbeste kostatako testua... Hala ere, beste muturreko kasuan ere, zailtasunaren partearekin bakarrik gera daiteke irakurlea: Shakespeareren sonetoak, e, errima eta guzti... joño! Edozein modutan, muturretan zein erdian, hobe ez begiratzea horri: egin, eta kito (Hamlet-ek garbi uzten du hausnarketa gehiegia ekintzaren etsai dela).

Itzulgairik latzena?: hurrena datorrena, egiteke dagoenez.

KARLOS: Eta atseginena?

JUAN: Esango nuke kantak itzultzen eta doinura egokitzen pasatu ditudala unerik atseginenak: jolas hutsa, gustuko musika lagun... Barthes-en ildotik bereiz genitzake, hala ere, atsegina eta gozamina (bi hitzon zentzu erotikoa inolaz ere baztertzeke). Gozamina ez da atsegina bezain arina, eta bakanago lortu ohi da; intentsitatez eta betetasunez saritzen du, ordea, hartara iristeko neke hori. Zentzu horretan, *Sonetoen* ibilbide guztia izango da nire itzultzaile-gozamenen gailurra. Baina ahaztuak izan ditzaket beste asko... datozkeenen irrikaz.

Askotarikoak ditut gustuak literaturan, eta aldakorrak izan ditut adinarekin. Diakronian, prototipotzat hartuta, bi fase ditut gogoan iraunkor samartzat: Gabo-Grass-Llosa > Calvino. Hortik aurrera, ez dut uste hain fokalizatua ibili naizenik, baina erremediorik gabe nindekarren ibilbide horrek (eta bizitzak) iturri klasikoetara; erakarri izan nau experimentalismoak eta berritasunak, baina kanon-zale samartu ote naizen denborarekin: ibai guztiak eramaten, nonbait, Avon-era. Itzuli ditudan idazle guztiak ditut, hala ere, alde edo molde, kuttun, eta eragin sakona utzi didate itzultzaile, idazle eta pertsona modura. Zertarako, bestela, hainbeste denbora pasatu haiekin?

Zergatik erakartzen gaituen esaten bage-neki, ez ote luke bertan xarma galduko hala erakartzen gaituen horrek? Arrazoia garbi ez dagoelako edo aldiro desberdina delako ez ote ditugu kutunago kuttun ditugunak? Eman nitzake, beharbada, zertzelada batzuk aipatu ditudan kutun(en) horietariko bat edo besteri buruz, baina ihes egingo lidake

garrantzitsuenak, edo tautologikoa litzateke kontua... zera, maitasuna esplikatzea bezala litzateke.

KARLOS: Ez (ei) diozu uko egiten polemika edo eztabaida saio on bati, datorrena datorrela ere...

JUAN: Eztabaida nahiago polemika baino. Eskarmentuak diost botere(txo)en arteko jokoa gailentzen dela askotan iritzi-truke jatorraren gainetik edo azpitik. Gehien erabiltzen diren gune eta formatuak ere ez zaizkit iruditzen egokiak gutxieneko fundamenteuarekin heltzeko funtsezko kontuei. Botere(txo)-talka eta arinkeria; ni ez nabil gustura saltsa horretan. Horregatik-edo (adinak dakarren nekea ere izan daiteke eskarmentutzat jo dudana), aspalditxo honetan ez naiz hain erraz oldartzen edozein ziritara. Polemika bila dabilzanenetara batez ere, grina hori baino zerbait taxuzkoagorik ez badute behintzat. Hala ere, eztabaida benetakoaren oso zale izaten jarraitzen dut eta jarraitu nahi nuke, baina ez edonola. (Bai: edonoren edozein iritzik edonon berdin babilio ez duela pentsatzen duten elitista zaharkitu horietarikoak nauzue).

KARLOS: Peter Newmarken arabera: «Hiztegia zurrunda da, eta ezin da nahierara erabili; joskera, ordea, guztiz malgua». Nola lortzen duzu bien arteko oreka?

JUAN: Esango nuke nahasgarria dela Newmark-en hori horrela formulatuta (bide batez: negargarria da haren liburu ospetsuaren gaztelaniazko bertsioa; eta ez da kasu bakarra horrela itzulpenaz diharduen testua guztiz trakets itzulia datorrena gazte-

laniaz: ikus, besteak beste, zertan geratu zen *After Babel*). Sintaxi-egitura ere, gramatika-arau den aldetik, zurruna da bere horretan. Sintaxien *arteko* aukera da malguagoa, estiloari dagokion aldetik (zentzu oinarrizkoen: testugilearen hautura geratzen dena). Horretaz aritzen gara ikastaroetan, testugilearen esku dagoen parte horretaz (jokera-*aukerez*); alegia, testuaren antolaeraz.

Hiztegiari dagokionez ere bereizi beharra dago hitz erreferentzial soilen kontua (hori bai zurruna, erreferentziak aldatu nahi ez badira) eta gainerakoena, adjektiboetatik hasi eta nominalizazio-bideen bihurritasuneraino. Izan ere, hor ere bada aukerarik eta malgutasun-tarterik, jokera-aukerekin gutziz loturik. Bi mailak bereizteko inertzia izaten dugu, baina oso konektaturik daude, askotariko joko semantikoz, sintaxia eta hiztegia, eta bietan aurkitzen dugu parte bat zurruna eta beste bat hautazkoa.

Ni, beraz, *bien arteko oreka* bilatu baino areago, testuaren osotasunari modu sintetiko, integratu batean begiratzen saiatzen naiz, analitikoki bereizten ohituta gaude netik harago: komunikatu nahi den horren zerbitzura jarririk hizkuntzaren arma guztiak.

KARLOS: Egile berberak dioenez, testurik teknikoenean ere terminologia % 5 eta % 10 bitartean da; gainerakoa, fraseologia da; alegia, estiloa. Zelan ikusten duzu auzia?

JUAN: Hor ere, zehaztasun bat egingo nuke: estiloa ez da fraseologia hutsa. Fraseologia terminologiaren eskutik joaten da, eta hiztegiaren hedapen moduko bat da: hitza baino zabalagoko unitate lexikoak. Aurreko atalean saiatu naiz azaltzen zeri esaten dio-

dan nik, hemen ari garen auzian, *estilo*: testugileak hautazko duenari.

Hori esanda, ehuneko bostetik hurbilago dagoela esango nuke, hamarretik baino. Baita alorreko fraseologia espezifikoa sartuta ere terminologiaren barruan. Hori, objektiboki arakatuta testuak. Beste kontu bat da espezialitate-testuen erabiltzaile batzuek irudipena izatea, kontu kontzeptualak eta linguistikoak bereizi ezinez, dena dela beren alorrean terminologia zientifikoa, azken xehetasuneraino. Adibide mordoa eman nezake, baina ez dut berriz piztu nahi inorekin halako gor-eztabaidarik...

KARLOS: Ecoren arabera, itzultzailea librea da, itzulpena lotuago dagoelako xede hizkuntzaren senari arau jakin bati baino. Zentzueraino sentitzen zara sortzaile eta libre itzultzean?

JUAN: Uste dut jadanik azaldu dudala horretaz dudan jarrera. Itzultzailea sortzaile da (izan behar du)... jatorrizko sortzailearekiko fidel izango bada. Sortzaile, gainera, harroa, bere gain hartzen duen eginkizun gaitz horren tamainakoa: efektu *bera* sortzea *bestela*. Itzulgaiaren morroi gogotsu, beraz, baina, aldi berean, sortzaile libre harro.

KARLOS: Horri lotuta, zer alde igarri duzu, itzultzerakoan, testu tekniko eta literarioen artean?

JUAN: Mota bakoitzean komunikatu behar direnen araberrako pertinentzia-hierarkia aldatzen da alderdi batzuetan, baina ez guztietan. Literaturan, efektu estetiko dago ororen gainetik; testu tekniko jatorretan (utz dezagun horretan bestelakoen kontua),

argi-zehaztasuna da helburu behinena. Eta, jakina, mota bakoitzaren barruan ere ez dira kasu guztiak berdinak. Bestalde, ez dago, jakina denez, genero pururik. Literaturak edozer fagozita dezake, are testu teknikoak, eta testu teknikoak bere izan dezake asmo estetikoak ere.

Ni, hain zuzen ere, dibulgazio-liburuen itzulpengintzan aritua naiz batez ere azkenaldian, eta hor esplizitua da *kultura biak* (literatura/zientzia) bateratzeko asmoa. Hor bai datorrela harira *orekaren* kontua, aipatu berri ditudan pertinentzia nagusi biak ondo ezkonduko badira (eta ez literaturazalea eta ez zientzialaria guztiz gogaitu edo haserretuko ez bazaizkigu).

Uste dut badela hor arazo espezifiko bat gurean, halako generoek euskaraz izan duten garapen eskasarengatik. Ez dakit erraz ikusten den lotura, baina antzeko auzia dugu (eta, oraingoz, porrota), besteak beste, filmen bikoizketan: ia ezinean bagabiltza zehatz adierazteko —eta ulertzeko— gauzak eta munduak, neke horrek eragozten digu eroso eta natural gozatzea atsegin estetikoaz.

Batzuek zotz magikoz konpondu nahi dituzte halako arazoak gauetik goizera, baina ekimen adina pazientzia eskatzen dute noski, iraunkortasuna eta ganora, garenari eta dugunari zukua ateraz joateko, eta hizkuntza zernahitarako tresna egokitzat trebatu eta zorrozteko bidean ez etsitzeko (kultura-hizkuntza nagusiek mende batzuetan egin dutena egiten ari gara urte gutxitan, eta ez dezagun hori bistatik galdu). Bide batez, eta bentzu entzuteko belarririk duenak: ez du euskarak errua; gure klasikoak zioen moduan, euskaldunona da, izatekotan, eskasia.

Hizkuntza-ingeniaritza nahiz azti-lana bainoago, hobekuntza pertsonala behar da hemen, nire iritziz: errezeten zain egon beharrean, norberak zaindu egunero osasuna.

KARLOS: Zer erantzuten edo pentsatzen duzu *Traduttore, traditore...* entzutean?

JUAN: Zein indartsua den topikoen inertzia. Eta, idatzita badator, deformazio profesionalez, ea ondo jarrita dauden t letrak hitzotan...

KARLOS: Zer da, zure iritziz, fidelasuna itzulpengintzan?

JUAN: Behar den arreta guztia jartzea itzulgaiaren zerbitzura, eta hura edukitzea beti gogoan irakurle berrien zerbitzura zeure testua sortzean. Bitartekari fidagarria izatea, alegia, bestela elkar adituko ez luketenen arteko tratuan. Komunikaziorik, gozamenik eta are maitasuna sortzen bada, haien artekoa izango da, baina zu gabe ez zen izango halakorik batere. Bai, Zelestina ere fidela zen, zentzu horretan: bitartekari prestua.

KARLOS: Zer sentitu zenuen zeure euskarazko lana erdaratuta ikustean? Nolako harremana izan zenuen itzultzailearekin?

JUAN: *Itzalen itzal* Manu López adiskideak gaztelaniaratu zuen, eta nahikoa lan izango zuen noski hango nire joko eta jolas bihurriak egokitzen. Uste dut ondo gorde genituela oinarritzko arauak: ni ez nintzen sartu bere irizpide eta aukeretan, berak niri zerbait esplizituki galdetu ezean, eta berak aintzat hartu zituen interpretazio-zalantzen inguruko nire oharrak. Uste dut lan bikaina egin zuela, eta ondo irakurtzen dela testua,

berezko zailtasunak gorabehera. Efektuaren parte bat, hala ere, ezinbestean da desberdina, kolore estilistikoaren jokoaren ezhokoagoa, berriagoa baitaio —eta areago liburua argitaratu zenean— euskal irakurleari gaztelaniazkoari baino. Nolanahi ere, lagun erdaldunek maiz gogoratzen didaten moduan, horixe dut nik liburu oso bakarra haiek nire literatura-bideak ezagutzeko.

Gubbio istorioa frantsesera eta ingelesera ere itzulita dago, eta, ni hori epaitzeko gai naizen punturaino, modu bikainean. Ingelesekoan, Kristin Addis amerikar euskaringeles itzultzaile trebeak eta biok luze, bero eta zorrotz eztabaidatu genuen testu guztia, eta primeran pasatu nuen nik behin-goiz itzulpenaren barrikadaren beste aldetik ikusiz gauzak. Bera ere ez ahal nuen gogaituko neure burugogorkeriaz. Frantsesezkoa Kattalin Totorikak egin zuen, zoragarri hark ere, nirekin deus kontsultatu beharrik gabe: ez dago modu bakarra (are gutxiago errezetarik) itzulpenak ondo egiteko. Beste hizkuntza batzuetara ere itzulita dago ipuin hori (italiera, errusiera...), eta *Pernixio*, polonierara eta serbierara, baina nik ez dut traturik izan itzultzaile horiekin.

KARLOS: Zenbait euskal girotan, oraindik, sorkuntzazko testuak itzuliek baino izen handiagoa dute. Zer deritzozu horri?

JUAN: Aitzakia ederra dela ez irakurtzeko, ez itzulpenik eta ez bestelako libururik ere noski. Edota, zerbait irakurritz gero, geure txokotxotik mundura irten nahi ez izatea. Oso erraza da kontraesana ikusarazten: nola jokatzen dute erdarazkoekin?

KARLOS: Claudio Magrisen aburuz, itzulpena beste literatur genero bat da, eta itzul-tzailea, ondorioz, *egilekidea*. Hala da zure iritziz ere?

JUAN: Guztiz bat nator. Baina maila filosofikoan hartu behar da hori; alegia, ez erabili gurean (batzuek testuen teknikotasuna bezala) aitzakia gisa testuak beste *hizkuntza-modu* batean emateko, benetan euskaratzeko kemen edo abilitade faltaz (nik ikastaroetan *itzulera* deitzen diodan eta ez erdara ez guztiz euskara den *indiolekto* ezertarakoez batean, txantxa zilegi bazait). Ondo irakurri: «beste literatur genero bat» dio, eta ez «beste hizkuntza molde bat».

KARLOS: Benetan izan behar du ikusezina itzultzaileak? Batzuek diotenez, zure itzulpenak erraz identifikatzen dira, estilo ezau-garri jakin batzuk izaten dituzte.

JUAN: Identifikatuko ez dituzte, ba! Neure izena etorri ohi da-eta aurretik!

Nahi izatera, aise egingo nuke inork ez ezagutzeko moduko itzulpenen bat, akats arrunt eta guzti, baina nahiago dut gai naitzen ondoen zaindu darabildan hizkuntza, inori dotorekeria iruditua-gatik (ohoretzat daukat nik hori mordoilo-zaleengandik etorrita). Kontua ez da hori —alegia, ea beste itzultzaileen idazkeratik zenbateraino bereizten den nirea, ezinbestean bainaiz ni neu hor testugile, neure neuretasun eta neurekeriekin—, baizik eta ikustea ea bereizten diren nire itzulpenak estiloz *beren artean*. Esate baterako, ea, demagun, Rulfo eta Henry James, Borges eta Primo Levi berdin eman ditudan estiloz (denak ere *garzieraz* egotea

gorabehera), edota, zergatik ez, Shakespea-
reren *Sonetoak* eta *Uda-gau bateko ametsa*.

Bide horretatik joz gero, zer esan liteke
Queneau/Olarra estiloaz *Estilo-ariketak* os-
petsuan?

Tira, ezintasun metafisikoa da itzultzailea
autore izatea eta idazle-estiloren bat ez iza-
tea berez, nahiz eta liburu bakoitzean lite-
ratura-estilo desberdina erabili, autorearena
islatu beharrez.

KARLOS: Miresten duzun itzultzailearen bat?

JUAN: Bat bakarrik aipatzearren, oso kuttun
izan dut neure hastapenetatik Miguel Sáenz
gaztelaniazko itzultzaile oparo bezain bikai-
na. Uste dut asko jaitsi dela batez besteko
maila azken urteetan, liburu-industriaren
zekenkeria itsua dela eta. Lotsagarritzko aka-
tsak aurkitzen dira gaur egun testu gehie-
netan, bai eta ia osorik trakets asko diren
itzulpenak. Hala ere, bada harribitxirik; esa-
te baterako, Murakamiren prosa zoragarria
da gaztelaniazko bertsioan (ez dut gogoan,
barka, itzultzailearen izenik). Halakoetan,
bost axola, edo kasik hobe, jatorrizko hiz-
kuntza ez ezagutzea irakurleak: ez luke me-
ritu makala itzultzaileak bere kabuz *asmatu*
badu halako testua, jatorrizkotik aldendu
zein ez.

Euskarazkoetan, literaturan behintzat,
hobea da oro har, nik uste, itzultzaileen
maila, eta bikaina kasu askotan (barka be-
kit ez aipatzea bat hainbesteren artean:
dozena bat izen datozkit oraintxe burura).
Arazo handiagoa ikusten dut irakurle izan
litezkeen ohitura eta trebakuntza faltan,
euskararen gizarte- eta kultura-normalizazio

eskasaren testuinguru orokorrean (diglosia
eta ahulezia).

Tira: izenik ezetz esan dut, baina Xabier
Olarra aipatzea ez dago lekuz kanpo: haren
ibilbide osoa, jakina, baina azken alea bera
bakarrik ere bada txapela betiko kentzeko
modukoa. Sekulako lana litzateke Joyce-ren
Ulises zentzu guztietan hain potolo hori *edo-
nola* itzultzea ere; Xabierrek ez du, ez hori-
xe, edonola itzuli (bai, ordea, bizkor arrai-
o: di-da batean, esate batera; zer deabruerekin
itunduta ote dago halako etekina ateratzeko
bere orduei?). Konplexua sortzen digu, egia
esan, askoz ere lan txikiagoak egiteko askoz
ere denbora gehiago behar izaten dugunoi.

KARLOS: Umberto Eco idatzi zuenez,
itzultzailea zentzu komunari min ematen ez
dioten hizkuntzazko soluzioen negoziatzaile-
a da. Hala deritzozu?

JUAN: Bai. Beste hitz batzuekin esan nahi
izan dut lehenago gauza bertsua: itzulgaiari
eta testu itzuliari, biei zor zaienaren arteko
oreka zaintzea, pertinentzia gidari.

KARLOS: Baduzu esku artean itzulpen lanen
bat hasita? Hasi-alde batera laga-ostera ere
ekinikoren bat?

JUAN: Aipatu dut *Midnight's Children*en ka-
sua. Errazago izaten da, askoz, alde batera
uztea berriro ekitea baino...

KARLOS: Aspaldion irakurritako itzulpen
gogoangarriren bat (berdin dio hizkun-
tzak)?

JUAN: Murakamirena aipatu dut arestian.
ねじまき鳥クロニクル, *Nejimaki-dori*
Kuronikuru [*Crónica del pájaro que da cuer-*

da al mundo] da irakurri nuen lehena, eta liluratuta geratu nintzen prosaz; gerora, irakurri nuen lauzpabosgarren liburuarekin, aspertu egin ninduen formula beraren errepikapenak, baina tira. Gaztelaniazkoekin jarraituz, Miguel Sáenzenak, jakina; A. S. Byat-en *Possession* ere bikaina iruditu zitzaidan María Luisa Balseiro-ren bertsioan. Esan dut batez besteko maila asko jaitsi dela, baina, lehen bezala orain ere, bada itultzaille bikainik. Euskaraz, gure zirkuituaren eskasiak gorabehera, Literatura Unibertsala bildumak izugarritzko gorakada ekarri zuen kalitateari dagokionez, eta *laborategi* horren fruituetatik elikatzen da orain euskal itzulpengintza literario guztia. Batzuetan, askotan, pena ematen du aurretik irakurria izatea euskaraz plazaratzen den alea. Une batean, kezkaturik egon nintzen itzulpengintzaren *guardia zaharra* erretiratzean zer izango zen, baina badatoz gazteak indarrean, aurrekoon markak berehala hautsiko dituztenak... lanbidearen kondizioek are okerragora egiten ez badute (edo bizioz debalde itzultzen jarraitzeko kemenik ez badute).

KARLOS: Itzultzen hasi nahi dutenentzako eta hasi berrientzako aholkuren bat?

JUAN: Ekin, ekin, ekin, eta jarrai, jarrai, jarrai. Eta zeu izan zorrotzena zeure hobetu beharrean. Infinitua da ikasbidea: tematu, baina ez erotu.

KARLOS: Behar diren baldintza guztiak eskura edukita, zer gustatuko litzaizuke itzultzea?

JUAN: Parean harrapatzen nuen gustuko edozer itzultzeko bulkadak bizi izan nau orain arte, eta neure ahalen neurrian eutsi diot horri: ez naiz kexatzen. Orain, gehixea-go pentsatuko nuke zer itzulgai aukeratu: jolas-puntua galdu gabe, baina egitasmo jakin bati jarraituz. Akaso, Larrakoetxearen bidea segitu behar nuke: fraide sartu, eta Shakespeare-ren antzerki-lan guztiak itzuli. Aukeran, hala ere, komentura sartu gabe nahiago.

KARLOS: Zelan ikusten duzu euskal itzulpengintzaren etorkizuna?

JUAN: Ai etorkizun-ikusle banintz!

Resumen

En esta entrevista electrónica, este creador polifacético, con un largo recorrido en el campo de la traducción al euskera, muestra su semblante más relacionado con la traducción. Es uno de los pilares de la moderna traducción vasca, como prueba el haber recibido en dos ocasiones el Premio Euskadi en la modalidad de traducción. Por otra parte, mediante esta entrevista, tanto la revista *Senex* como la asociación EIZIE quieren pagar parte de la deuda pendiente con un socio que a lo largo de muchos años ha escrito numerosas páginas, tanto de papel como electrónicas, en las diversas publicaciones de la asociación, además de ser un colaborador incansable en otras muchas iniciativas de EIZIE. Entre líneas, Juan Garzia apunta que en traducción teoría, práctica y pedagogía pueden (y deben?) ir de la mano.

Résumé

Lors de cet entretien réalisé par voie électronique, ce créateur éclectique, au long parcours dans le domaine de la traduction vers l'euskara, nous montre sa facette de traducteur. Il est l'un des piliers de la traduction basque moderne, preuve de cela le fait d'avoir été par deux fois lauréat du Prix Euskadi de traduction. Par ailleurs, avec cet entretien, la revue *Senex*, tout comme l'association de traducteurs EIZIE cherchent, dans la mesure du possible, à s'acquitter de la dette contractée envers ce membre de l'association qui, des années durant, a collaboré avec elle soit en signant de nombreux articles dans diverses publications de l'association, soit en participant à maintes activités organisées par celle-ci. Il suggère dans cette conversation qu'en matière de traduction, la théorie, la pratique et la pédagogie peuvent (et doivent?) aller de pair.

Abstract

In this electronic interview, the versatile and creative Juan Garzia, who has a long history in the field of translation into Basque, shows the side of himself that is most closely associated with translation. Garzia is one of the pillars of modern Basque translation, as proved by his having twice been awarded the Euskadi Prize in Translation. Moreover, through this interview, both the journal *Senex* and EIZIE [the Association of Translators, Correctors, and Interpreters of the Basque Language] would like to pay part of their debt of gratitude to Garzia, who, over the course of many years as a member of EIZIE, not only has written numerous pages, both hardcopy and electronic, for the various publications of the association, but also has been an unflagging collaborator in and contributor to many of EIZIE's other initiatives. In the interview, Garzia states that, in translation, theory, practice and pedagogy can (and should?) go hand in hand.